

2021eko MAIATZA

200

taxi kitto!



**IPURTERRE-k
baditu irabazleak**



Euskara Elkartea

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartea.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maider Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Ekhi Belar

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



ibaizabal



literatura
Susa

El Corte Inglés



XXVII. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA



Gipuzkoako Foru Aldundia

...eta kitto! Euskara Elkartek Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketaren XXVII. edizioa antolatu du Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LHko eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurten, 1.000 ipuin eta gutun inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurten ere, bizi dugun egoera aintzat hartzen badugu, batik bat, eta esker oneko hitzak besterik ez ditugu zuentzat. Beraz, irabazleei zoriontzeaz gainera, parte hartu duzuen guztioi ere gure eskerrik beroenak helarazi nahi dizkizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzera animatu. Urteroko moduan, esku artean duzuen Txikitto!-ren ale hau ia osorik eskainiko diogu Ipurterreri. Bertan dituzue eskura aurtengo ipuin irabazleak. Sartu, sartu... eta gozatu!



LH 1-2
PAULA DIEZ (La Salle Isasi)

Elena eta ipotxa

Duela asko, herri batean, Elena izeneko neskatila bat bizi zen bere gurasoekin. Egun batean, Elena basora joan zen perretxiko bila. Gosea zeukanez perretxiko bat jan eta morea jarri zitzaion azala eta bat-batean ipotx bat agertu zitzaion aurrean. Esan zion ipotxak Elenari:

- Segi niri eta zure azala lehengo kolorera bueltatuko dut.

Eta Elenak ipotxari segitu zion eta ipotxak bere etxera eramane zuen. Bere etxean pozoi bat zeukan eta Elenak pozoia edan eta azala bere kolorekoa ipini zen. Eta hau hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Eibarko plazan.



LH 3-4
OIHENART AGIRRE (La Salle Isasi)

Txori urdin

Bazen behin txoritxo bat Urdin izenekoa. Ez zen besteak bezalakoa, bera urdina zen eta beste txoritxoak marroiak ziren. Bere lagun bakarrak Fi zuen izena. Baina Firi berdinean zitzaion azaleko kolorea, begiena edo gorputzaren forma. Berarentzat garrantzitsua zena zen: lagun jatorra, alaia edo bihotz onekoa izatea.

Egun batean, Fik festa bat egin zuen. Festa arraro bat, denak begiak estalita etorri behar zirelako. Gainera, ezin zen norberaren izena esan. Bakar-bakarrak hitz egin eta dantzatu egin ahal zen.

Denak etorri ziren festara eta, ezinezkoa zirudien, baina beste txoritxoak Urdinekin hitz egin eta dantzatzen zeuden! Orduan Fik esan zien begiak irekitzeko. Oso harrিতa zeuden konturatu zirenean Urdinekin batera egon zirela!

Orduan ulertu zuten ze puntutik ikusten zuen Fik Urdin, eta denak lagunak egin ziren. Eta, hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Untzagako plazan.





LH 5-6

AINHOA EGURROLA (J.A. Mogel Ikastola)

Tupper bat naiz, tupper soil bat

Iazko irailean, hantxe nengoen ni, Khloe eta haren familiaren etxean. Aurkeztu egingo naiz: tupper bat naiz, tupper soil bat. Bo dut izena eta tapa berdea dut, nire kolore gustokoena. Lagunek (beste tupper batzuk) oso barregarria eta lasaia naizela esaten didate. Eranskailu bat dut (dudan pitzadura ezkutatzeko), nire jabearen izenarekin: Khloe. Khloek hamaika urte ditu, aita txinatarra du eta horregatik du abizena Zheng. Ilea txokolatea bezain marroia du, eta begi ilun-ilunak. Eskolan barre egiten diote, begi txinatarrak direla-eta. Konfinamenduan janari txinatarrez betea egoten nintzen, ezin bainuen Khloeren hamaiketako gorde, ez zegoelako eskolarik. Baina irailean eskola hasten denez, berriz ere Khloeren hamaiketako eraman ahal izango nuen, eta nire jabearen izena zuen eranskailua erakutsiko nien nire lagunei!

Oso urduri nengoen eskolako lehen egunean. Khloek sagar bat eramango zuen hamaiketarako, eta nire barruan gorde zuen. Zelako poza! Khloe



eskolako atetik sartu zenean, hara zer esan zion gelako harroputzak, Mikelek, txinatar plantak eginez:

- Zel moduz zule udako opolak, Khloe Zheng?

Aldamenean zituen guztiak barrez lehertzen hasi ziren, eta Khloe, berriz, negarrez. Matematika zegoen lehengo orduan, Khloeren gairik gustokoena. Irakaslea txapa ederra botatzen hasi zen, betiko bezala. Baina, bat-batean, usain arraro bat sumatu nuen nire barnean. Sagarra ustel-ustela zegoen!

- Puajj, hau bai nazka! - esan nuen inorrek ez entzuteko moduan.

Khloe asko maite nuen, baina barruko sagarra bota egin behar nuen, zegoen kiratsaz hil baino lehen. Poliki-poliki motxilaren kremlera irekitzen joan nintzen, nire tapa zabaldu eta... Danba! Ni jausi nintzen lurrera sagarraren orde. Sagarra motxilan geratu zen, baina kiratsa zegoen oraindik nire barnean, eta jolaslekura irtetea erabaki nuen, aire pixka bat hartzeko. Mundu guztia klasean zegoenez, korridorea libre neukan eraikinetik irteteko. Baina, justu momentu horretan, nik espero ez nuen zerbait gertatu zen. Kristoneko zarata entzun nuen jolaslekutik etortzen. Kaka! 9:00ak ziren, eta txikiak zetozen. Ahalik eta azkarren ezkututzen saiatu nintzen, baina ez nuen arrakastarik izan. Makina bat ume sartu ziren korriketan eraikinera, eta korridoreetatik builaka hasi ziren. Bihurri aurpegia zuen ume ilegorri batek aurkitu ninduen, eta zera esan zuen:



- Lagunok, begira zelako tupperra aurkitu dudan! Khloe izeneko neska batena da, baina hor konpon! Orain gure futboleko baloia da.

Inguruan zeuzkan neska-mutilek ados zeudela esan zuten, mutil ilegorriaren motxilan sartu ninduten eta klasera sartu ziren. Khloeren jolastordua heldu zenean, sagar ustela ingurune eta gaztelerako liburuen artean kakapila eginda aurkitu zuen.

- Iñigo, nire motxila sagar ustelez beteta dago, dena zikinduta! - esan zion tutoreari.

- Kar kar kar! Zelako hamaiketako goxoa ekali duzun! - esan zion Mikel madarikatuak.

Inguruan zeudenak, barre egin ordez, Khloerengana hurbildu ziren, motxila garbitzen laguntzera.

- Baina, zertan zabiltzate? - gehitu zuen Mikelek. - Garbitu dezala berak bakarrik!

- Eta zergatik ez duzu zuk garbitzen, Mikel?
- erantzun zion tutoreak. - Ea zelako barregura ematen dizun!

Mikelek garbitu zuen azkenean motxila, eta jolastordua galdu zuen. Merezita!

Geroago, txikien jolastordua iritsi zen, eta ilegorri hark bere motxilatik atera ninduen. Ni baloia nintzenez, ostikada mordoa jaso nuen, eta beste pitzadura bat egin nuen. Kaka! Ni berriro gelara eramateaz ahaztu ziren, eta hantxe gelditu nintzen, jolastoki erdian botata, pitzadura erraldoi batekin.

Khloe oso arduratuta zegoen, ez baininduen aurkitzen.

- Sagar ustela nire tupperraren barnean zegoen, baina tupperra desagertu egin da! -esan zuen Khloek arduratuta.



Eskolako garbitzaileak aurkitu ninduen, eta gelaz gela jabeaz galdetzen hasi zen. Khloeren gelara heldu zenean, zera galdetu zuen:

- Gela honetan badago Khloe izeneko...

- Nire tupperra! - moztu zion Khloek, jausi batez bere lekutik jaikiz. - Non zegoen?

- Jolastokian, futboleko zelai erdian. Pitzadura bat du.

- Ez dio axola. Mila esker!

Etxera itzuli ginenean, bere eranskailu gustokoena itsatsi zidan pitzadura gainean. Oso polita zen! Aurpegi irrifartsu bat zen, hori-horia.

- Primeran gelditu zara! - bota zidan nire jabeak.

Handik aurrera, beti daramat eranskailu hura itsatsita, eta pitzaduraren bat egiten badut ziur nago beste eranskailu bat ipiniko didala. Khloe izugarri maite dut!

Oharra: ez zaizkit sagar gehiago usteldu, orain arte, behintzat.



DBH 1-2

Leire Iturriarte (La Salle Azitain)

Euskara ofiziala izango ez balitz, nik...

2021eko martxoaren 22a, Eibar

Kaixo Sandra,

Zer moduz? Orain dela gutxi zure gutun bat iritsi zait eta galdera bat egin didazu. Zure galdera euskara ofiziala izango ez balitz nik zer egingo nukeen zen. Buruari bira asko eman dizkiot. Hau da nire erantzuna:

Euskara ofiziala izango ez balitz, nik euskaraz hitz egiten jarraituko nuke. Hizkuntza ofiziala izan edo ez, guk eskubidea dugu euskaraz hitz egiteko. Euskara galdu nahi ez badugu, euskaldunok euskara erabili behar dugu; lagunekin, etxean, eskolan...

Gure harremanetarako askotan gaztelania gehiago erabiltzen dugu eta ez diogu euskarari behar duen garrantzia ematen.

Kontatu zidatenez orain dela urte asko euskara hil zorian egon zen, baina herritarren parte hartze handiari esker, hizkuntza bizirik irautea lortu zuten. Orain gure esku dago euskara gehiago erabiltzea.

Nire amonak beti kontatzen zizkidan ipuinak euskaraz eta gauza asko ulertzen laguntzen zidaten, oso pozik egoten nintzen bere ondoan momentu horietan.

Amonak beti esaten zidan euskara hizkuntza modernoa zela eta ez galtzeko, erabili egin behar genuela. Orain konturatzen naiz zergatik esaten zidan hori.

Guzti honekin esan nahi dut euskara ofiziala izan edo ez erabili egin behar dugula.



Idazle bikainak ditugu euskaraz liburu asko idazten dituztenak eta egunero gur esku izan ditzakegu irakurtzeko, euskara bultzatzeko...

Gure kultura da. Milaka pertsonak euskararen alde lan egiten badugu, hizkuntza zaindu eta babestuko dugu.

Jendeak gero eta gutxiago erabiltzen du hizkuntza eta hori aldatzeko bi urtean behin euskaraldia egiten da. Euskaraldia 11 egun euskaraz hitz egiten egotea da. Hiru hiztun ezberdin daude:

- Ahobizi: Euskara ulertu eta hitz egiten duena.
- Belarriprest: Zuri euskaraz hitz egiten entzuteko prest dago.
- Bihotzgoxo: Euskaraz ez dakiena baina maitatu egiten duena.

Eta zuk zer erantzungo zenuke?

Zure erantzunaren zain geratzen naiz.

Agur bero bat.



DBH 3-4

Miren Urizar (La Salle Azitain)

Euskara ofiziala izango ez balitz, nik...

Eibarren, 2021eko martxoaren 2an

Arreba maitea:

Atzo gauean, gure osabarekin berbetan aritu nintzen. Gauza asko nituen hari kontatzeko, dezente igaro da-eta azkenik ikusi nuenetik. Halako batean, galdera bat egin zidan: "Euskara ofiziala izango ez balitz, zer?" Nire iritzia nahi zuen. Hasieran isilik geratu nintzen, buruari bueltak ematen. Halako galderak zailak iruditzen zaizkit gaiaren inguruan iritzi mordoa baitaude.

"Hizkuntzaren amaiera izango litzatekeela uste dut" bota nuen behingoan. Euskara gehienez Euskal Herrian hitz egiten da, eta ez da oso herrialde handia, egia esanda. Gainera, euskaldunoi gero eta gehiago kostatzen zaigu euskaraz mintzatzea, eta zergatik? Ez dago itxurako arrazoirik. Dakidana da herri askotan ez dela ia kaleetatik entzuten hizkuntza ofiziala izanda ere. Ofizialtasun horrek ikasketak euskaraz egiteko aukera ematen digu. Iragarkiak, instrukzioak, dokumentu garrantzitsuak... euskaraz egon ahal dira. Baita medikuntzako arloan daukagun osasun zerbitzua ere. Baina hizkuntzak egunerokoan erabiltzeko daude, besteekin komunikatzeko eta elkar eramateko. Horregatik, ez nago ziur ofiziala izango ez balitz erabiltzen jarraituko ote litzatekeen. Edo nik behintzat hitz egingo nukeen.

Baina... Ezin al da beste ikuspuntu batetik begiratu? Garai batean, gure arbasoak diktadura batean zeudela, euskara guztiz debekatuta zuten. Irakastea, hitz egitea, eta hizkuntzak egiten duen guztia kendu zuten. Horregatik, gaur egun, gure

aitona-amona edo guraso batzuk ez dakite euskaraz, ez zuten-eta inoiz ikasi. Dena den, askok ere etxean ikasi zuten, arauen kontra. Eta euskara guztiz debekatuta zegoen arren, orain batzuek diote garai

haiei esker ez zela euskara desagertu. Diktaduran hizkuntzaren inguruan ezarritako araua haiei esker jarraitzen duela oraindik erabilgarri. Ez dakit horrela izango den ala ez, ezta urte haietan gertatutakoa konparagarria den ere gaur egun euskararen ofizialtasuna kentzearekin. Argi dago beste garai batzuetan gaudela, eta euskara ofiziala izango ez balitz, kasua horretan praktikatzea ez litzateke debekatuta egongo. Diodana da, agian horrek kalean gehiago erabiltzera eramango gaituela. Ni ez nago guztiz ziur, egia esan.

"Euskara gure hizkuntza da, euskaldun egiten gaituena. Kultura oso baten parte da, ez da hain erraza horrekin bukatzea" esan zidan osabak. Irribarre bat atera zitzaidan nahi gabe, berarekin ados nengoela adieraziz. Lehen gai konplikatu dela aipatu dut, bai horixe.

Maite, zuk zer uste duzu? Zurekin ere honetaz hitz egitea nahi dut eta zure ikuspuntua ezagutu. Erantzunaren zain egongo naiz beraz.

Besarkada handi bat,





Tor magoak magiaaz liluratu gintuen sari-banaketan

Zer esango dugu Tor magoari buruz? Etxekoa modukoa dugula, ezta? Urte askoan etorri izan da Eibarrera eta etortzen den bakoitzan aho bete hortz uzten gaitu bere trikimailu zoragarriekin. Aurten ere ez digu kalerik egin eta saio bikaina eskaini zigun Ipurterre lehiaketako sari-banaketa ekitaldian, bertan zeudenen gozamenerako. Aurten ezin izan dugu Unibertsitate Laboraleko aretoa erabili, ez eta irabazleak ikaskideez lagunduta etorri. Familia giroan eta talde txikian, hala ere, primerako ekitaldia izan genuen.





Denborapasak



ASMAKIZUNAK

Botilaren muturrean naukazu eta ezinezkoa da edatea, baina ni askatzeko hobe duzu bi ezpainak ongi ixtea. Zer da?

Gona luzea du mihia motza, urrutitik entzuten da haren kantu hotsa. Zer da?

Kobazulo hori beti dago hezea, hesi zuriz inguratua han bizi da herensugea. Zer da?

Izanagatik txikia gela handira sartzean betetzen du guztia. Zer da?


Gorputz mehe eta luze mintzo naiz ahorik gabe. zer naiz?

Bi hanka izan arren ezin dugu biderik burutu, baina gizona gu gabe ezin da inon aurkeztu.

Balio du jateko balio du ukitzeko txalo egiteko eta, nola ez!, orri hau pasatzeko.


Zer eramaten dute erregeek sabelaren erdian?

ZENBAKIAK LOTU















LABIRINTOA



HIEROGLIFIKOA

 Zer hartu zenuen erortzean? <input type="text"/>	 Non ikusi duzu hori? <input type="text"/>	 Zer falta zaio oheari? <input type="text"/>
 Nolako da ariketa? <input type="text"/>	 Non jezarki sinea? <input type="text"/>	 Kolore bat. <input type="text"/>
 Hicekin jean zara stromera? <input type="text"/>	 Zer erabili zenuen garbitzeko? <input type="text"/>	 Gorpuztaren organo bat. <input type="text"/>

GURUTZEGRAMA



7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **Ekainak 3** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....


Adina..... Tel.



Leire sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, LEIRE ARANCETA

Aupa Leire, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko sudadera zuretako! ZORIONAK!



Ernesto elefantea 6 urtetik aurrera

Oihaneko beste ezein biztanlek ez dio laguntzen bere taldera itzultzen. Ez piztiarik indartsuenak, ez basatienak, ez azkarrenak ere. Txikienak, ordea, ustekabea emango dio...



Siberiako neskakila ausarta 8 urtetik aurrera

Saglana, bost urteko neskakila, Siberiako etxalde bakarti batean bizi da aitona-amonekin. Aitona itsuak Siberiako abestiak eta ohiturak erakutsi dizkio. Eta animalia basatiak, hartzak eta otsoak, mantsotzen. Amonak zaldi gainean ibiltzen, eta animaliak gobernatzen. Gau batean amona konorterik gabe aurkituko du sukaldean. Zer egin hura salbatzeko?



Onin mitologiaren lurraldean 10 urtetik aurrera

Kaixo! Onin naiz. Aspalditik izan dut mitologiaren munduan barneratzeko ametsa. Sekula ez nuen pentsatuko sarbideko atea etxetik hain gertu egongo zenik, inguratzen gaituzten mendietan. Alupak, gure lagun inuitak, laguntza behar du. Haren herria arrisku larrian dago, eta Mari jainkosak izan lezake hari laguntzeko giltza.

bitxikeriak



Hamster baten begiak erori egin daitezke buruz beherantz jarritz gero. Probarik ez egin gero, entzun?



Finlandian, galarazita zeuden Donald ahatearen komikiak, praktarik ez zeramalako.



Arrain txinatarrak ez dira arrainontzietan aspertzen, haien oroimenak bi minutu besterik ez baitu irauten. Eurentzat berriro jaiotzea bezala da.




Bata bestearen ondoan jarriko bagenitu sortu zirenetik gaur egun arte saldu ziren Barbie kopin guztiak, bi buelta emango genizkioke munduari.



Sudurrak bekokiaren luzera bera du.



Egiptoko Piramide Handiaren oinarria tamainan 10 futbol-zelaiaren baliokidea da.



sukal-saltsan

Amonaren arrautza mainontziak

Goxoa eta erraza. Errezeta honekin txundituta lagako duzue bat baino gehiago. Izan gozo, gozatu eta on egin!

OSAGIAK :

- 7 arrautza
- Bexamela
- 50 g gurin
- Esnea
- Irina



Nola egin:

- 1.- Hiru pertsonarentzat egosi 7 arrautza. Erdibitu sei arrautza eta utzi ontzi batean.
- 2.- Egin bexamela: 50 g gurin eta bina koilarakada esne eta irin. Horrekin arrautzak estali.
- 3.- Laberako ontzian jarri arrautzak eta berotu 15 minutuz 200 gradutan edo bexamela txigortu arte.
- 4.- Beste arrautza gogorra puregailutik pasa eta ontzia apaintzeko erabili, perrexil apur batez.




Banana Split

Banana heldu bat bitan zatitu eta erretiluan utzi. Bainila, txokolate- eta marrubi-izozki bola bana jarri bananaren gainetik eta esnegain harrotua zabalduko dugu haren guztiaren gainetik, koilara batez. Txokolate saltsaz ongi igurtziko dugu eta mahairako prest egongo da. Txokolate saltsa beharrian mugurdi (franbuesa) saltsa erabili dezakegu, eta gainazalean fruitu lehorrak, hur txigortuak edo arbendolak (almendra) hautseztatu ahal izango ditugu.



iturria: www.pagotxa.eus



Ura badoa!!

MATERIALA:

- 3 edalontzi
- Jakientzako koloregaiak
- Ura
- Paper xurgatzailea (sukaldekoa)



Nola egin:

- 1.- Jarri edalontzi huts bat erdian, eta urez betetako beste bi haren aldamenetan.
- 2.- Koloreztatu 2 edalontzietako ura bi koloretako koloregaiez (erabili kolore primarioak; adibidez, horia eta urdina).
- 3.- Jarri paper orri bat urez beteriko edalontzietan, ertz bat tolestuta duela, paperaren ertza edalontzian sartuta gelditzeko moduan. Egin gauza bera urez beteriko beste edalontziarekin.
- 4.- Itxaron minutu batzuk, harik eta urez beteriko 2 edalontzietako ura paperean "oinez" hasi eta edalontzi hutsera jausten den arte.

Zer gertatuko da?

Bi edalontzietako ur koloreztatu paperezko 2 orrietan gora igo, eta erdiko ontzira isuriko da; ontzian, nahastu egingo dira bi koloretako urak, eta beste kolore bat agertuko da. Esperimentu honetan, kapilaritatea deritzon likidoen propietateak hartzen du parte. Hain zuzen ere, kapilaritatea deritzo likido batek grabitateari kontra eginez paperezko hoditxo txikietan gora igotzeko duen ahalmenari.



Zuk galdetu, guk erantzun

Zergatik dira kolore arrosekoak flamenkoak?

Flamenkoak azaleko uretako lokatzetan aurkitzen dituzten algez eta krustazeez elikatzen dira, lokatza euren moko luzeaz iragazita. Jaten duten janariak lumei kolore arrosa ematen dien koloregaia du. Izan ere, jaiotzean, flamenkoak grisak dira, baina jan eta hazi ahala, arrosa koloreko bihurtzen dira.



Horrelako gehiago: www.esperimentuak.eus



zu margolari